

APIRILA

Apirilean zehar eguna ordu eta laurdena luzatzen da. Eguzkia apirilaren leian: irten 6,58etan, sartu 19,39etan. Maiatzaren leian irten 6,13etan, sartu 20,09etan.

Apirilak	6,	4,33etan,	ilargi berria (Ilgora hasi)
“	13,	0,13etan,	ilgora
“	20,	3,40etan	Eguzkia Tauro arora sartzen da
“	21,	4,13etan,	ilargi betea (Ilbehera hasi)
“	28,	21,46etan,	ilbehera

* ordu ofizialak.



Sagar-lorea

	EREIN		LANDATU	UZTA
BARATZA	Ilgora	Ilbehera	* Orburua * Tipulina * Letxua * Batata * Patata (goiztiarra) * Porrúa (goiztiarra)	* Ur-berroa * Zerba * Letxua * Espinaka * Apioa * Errefaua * Sendapokia * Terebuza * Txikoria * Baratxuri berdea * Endibia * Azenarioa * Eskarola * Porrúa * Erremolatxa gorria * Ilarra * Baba zuria
	* Piperra (denak) * Alberjina * Kuia (denak) * Kalabazina * Meloia * Luzokerra * Tomatea * Garbantzua * Dilista * Leka * Baberruna * Artoa (denak) * Angurria * Ekilorea * Orburua * Baba beltza	* Borraia * Buru-aza * Gardua * Espinaka * Zerba * Apioa * Brusselaza * Aza gorria * Letxua (denak) * Txiribia * Errefaua * Porrúa * Erremolatxa gorria * Sendapokia * Terebuza		
BELARRAK				* Huntza * Perrexila * Apoperrexila * Erabelar beltza

Erein: hazia

Landatu: * Landarea
* Aldaska
* Erreboila
* Begia
* Zainak
etab.

FRUITARBOLAK

Apirilean: aranondoa, melokotoi-arbola, paraguaiandoa, brinoiondoa, almendrondoa, abrikotondoa, elorriak, basaranondoa, gereziondoa, etab., hau da, hezurdunen fruitarbolak loratu ohi dira. Garai honetan izaten da gaitza eta izurriteen lehen kutsatze-erasoa eta gehienetan ziklo osoko bortitzena. Melokotoi-arbolaren kasuan nahitaezkoa gertatzen da loraldia hastear dagoela eta amaitu bezain azkar TMTD, Captan edo Ziram produktuaz bi tratamendu ematea, LEPRak (*Taphrina deformans*) zuhaitzak suntsi ez ditzen.

Sagarrondo eta Madariondoetan *Pikardatua* eta *Landare-zorria* balego, Elhuyar-en 20. alean esandakoa egin.

Ongarriketaren lehen zatia burutzeko garaia da. Fruitarbola gehien beharrak (heldutasunaren eta produkzioaren arabera) hektareako (10.000 m²) 150-250 Nitrogeno-unitate, 60-150 Fosforo-unitate, 150-400 Potasio-unitate eta 50-120 Magnesio-unitate izaten dira, ziklo osoan bi edo hiru emanalditan banatzen direlarik.

ESAERAK

(Julian Alustizaren *Euskal Baserriaren inguruan* liburutik jasoak).

- * Nik apirilei beldur ez ote duen eginen zizerkora (txingorra) ta elur. (Baztan)
- * Apiril biribil txerriak urdategian hil (Iturmendi)
- * Apirila biribila urdea tehian hila; ez da hila! bai da hila! Buztana badabila (Luzaide)
- * Arantza beltza hago zabal, arto lurrek aho zabal (Aztiria)
- * Arantza zurie lorán dago arto egiten giro dago (Gabiria)
- * San Jurji (apirilak 23) artoak egiteko goizegi San Markos (apirilak 25) artoak eginda balegoz... (Aztiria)
- * San Markos euri bizi urte dena gerezi. (Saldias)
- * Martxo lore, pirri lore (erraz galtzen dena) Apiril lore, urrain pare Maiatzeko lore, hutsa baino hobe (Ezkurra)



- Sagarrondo baten bizitza osoan produkzioa orotara %40 haztea.
- Merkatua eta prezioak kontrolatzea (sagardotarako sagarra-ekin dauzkagun arazoak gogoratu: urte batean sagarrrik gabe eta hurrengo urtean saldu ezinik).
- Lortzen diren sagarren kalibre eta konposizioa hobetzea (azukre-kopuru handiagoa, etab.)

Bi kontrol-sistema:

• Eskuz bakandu

Sistema hau oso zehatza da, (nahi dugun produkziarako arbora bakoitzean zenbat fruitu utzi kalkula dezakegu), baina kostuak asko garestitzen ditu; hektareako 200–300 ordu behar bait dira.

• Kimikoki bakandu

Fruituaren barruan hazten ari diren hazien garapena galerazten duten produktuak erabiltzen dira, fruitu ahulenak erori eta indartsuenak aurrera segitzen dutelarik. Erabiltzen diren produktuak: Azido Naftalenazetikoa (ANA), Naftalenamida (NAD) eta Carbaryl-a. Tratamenduak sagarrondo bariatatearen arabera egin behar dira. Tratamenduaren aplikazioa petaloak erortzen direnetik hainbeste egunetara (18-14) edo fruituaren diametroen batezbestekoa neurtuz (Golden sagarra 9-12 mm, Erregesagarra 8-11 mm) egiten da, baina beti hazi-kopurua dela eta hurrengo urteko lorealdia inhibititu edo murrizten den garaia baino lehen.

Tratamendu egokiena, bi bakanketa-sistemak erabiltzea da: tratamendu kimiko arin bat (beharrezko dosia baino ahulagoa erabiliz) eta izozteak igarotakoan eskuz bakanketa amaitu.

• Bakanketa kimikoaren baldintzak

- Goiz partean egin behar da; eguzki indartsuaren izpi ultramoo-reek produktua deusezta bait dezakete, fruituaren barrura pasa baino lehen.
- Produktua hutsik eman behar da, hau da, botika edo ongarrri foliarrekin nahasi gabe.
- 5 urte baino gazteago diren zuhaitzak ez tratatu; toxikoa gerta bait daiteke.
- Tenperaturarik egokiena 15-18^o tarte da, baina 10^o tik gora trata dezakegu.
- Sagarrondoen artean bariatate bat nagusi badugu, honen jokoeraz jabetu; ez bait dute denek berdin erantzuten.
- Hezetasunak tratamenduaren eragina areagotu egiten du eta aire lehorrak murriztu.
- Zuhaitzaren egoera ere garrantzitsua da, ahuletan bakanketa handiagoa delarik. Zuhaitzen zati indartsuenetan ere bakanketa ahulagoa gertatzen da. ●

BITXIKERIA

Sagarrondoak bi urtez behin eman behar al du fruitua?

Uste zabaldua da sagarrondoak beste fruitarbolen antzera, bi urtez behin bakarrik eman dezakeela sagarra. Eta uste diot; ez bait da horrela.

Sagarrondoak ziklo naturala osatzen duenean (hau da, ziklo honetan gizakiaren *partehartze* nabarmenik ez denean), arborearen ohitura urte batean izugarritzko sagar-produkzioa eman eta hurrengo urtean fruitu gutxi eta txikiak ematea da, hurrengo hirugarrenean berriro asko emanez. Joera honen arrazoiak oso sinpleak dira:

- 1.– Urte batean sagar asko produzituz gero, sagarrondoak asko sufritzen du uzta hori aurrera ateratzen. Karga izugarriak jasan behar ditu eta hurrengo urtean atsedentxo bat hartzen du.
- 2.– Fruituaren barruan dauden haziek, hurrengo urteko lorealdia inhibititu edo murriztuko duten substantziak ekoizten dituzte. Horregatik, urte batean zenbat eta fruitu gehiago eman, hurrengoan lorealdi urriagoa, eta alderantziz.

Sagar-produkzioa urteoro gutxi gorabehera berdina izatea lortuz gero, nekazariak izugarritzko abantailak lituzke: